



BESTAK ARIZKUN, ERRATZU, DONEZTEBE

2025

ttipi-ttapa | 880 zk. | 2025-06-19



ARIZKUNGO BESTAK 2025



MIKEL LIZARDI

Ekainak 20, ortziralea

17:00etan txupinazoa eta txopo goititza, **ondotik** bandera dantza. 18:00etan herri kirolak. 20:00etan Baztango jauziak eta mutil dantzak. 21:00etan baztan zopak eta **ondotik** Üzkülüz DJ.

Ekainak 21, larunbata

10:00etan diana herriko txistulariekin. 10:00etik aitzinera Enrique's Party. 14:00etan haurren bazkaria. 14:30ean gazteen bazkaria. 18:00etan txokolate hartzea. 19:00etan Andoni Ollokiegiren kontzertua. 21:00etan mutil dantzak eta gaita. 23:00etan Bizpitu Pelau eta 03:00etan Fifi eta Fefa DJ.



MIKEL LIZARDI

Ekainak 22, igandea

11:00etan haurren krosa. 12:00etan erraldoiak herrian barna. 17:00etan bingoa eta 19:00etan Bideabar taldearen kontzertua. 21:00etan mutil dantzak eta gaita. **Gauean** Alkoholinpiadak.

Ekainak 23, astelehena

10:00etan diana herriko txistulariekin. 12:00etan mus ineztura. 14:00etan zikloa eta mozturro lehiaketa, **ondotik** Elutxa txaranga herrian barna. 21:00etan mutil dantzak eta **ilunabarrean** suak, ezkila jotzea, antzerkia, mamuru erretzea eta dantza herrikoia. 23:30ean pintxaldi irekia.

Ekainak 24, asteartea

Argitzean udako solstizioa diana herriko gaitero eta soinuariarekin. 11:00etan meza. 12:00etan mutil dantzak, **ondotik** luntxa. 16:00etan haurren frontenis finala. 17:00etan ezpata dantza Arizkungo ezpata dantzariarekin. 19:00etan patata tortilla lehiaketa eta **ondotik** merienda afaria. 21:00etan mutil dantzak eta gaita, **ondotik** txopo botatzea eta *Gaixoa ni* herrian barna.

Dutarimuno
Ekologikoki ekoiztutako arrotzeak
Dutaria baserria · ARIZKUN · 616 756 359

BERRO BIDE FEND
NEKAZARITZA ETA INDUSTRIA TRESNEN
KONPONKETA, ALOKAIRU ETA SALMENTA
Ordoki industrial gunea - 31713 ARIZKUN
Tel. 948 45 33 43 - administracion@berrobide.com

MARMOLES SOULE
www.marmolessoule.com
LAPIDAK | PANTEOIAK
HILERRIAK | ZAHARBERRITZEAK
GARBIKETAK | HARRI ZIZELKATZEA
M. 688 605 182 | T. 948 453 444
ARIZKUN | marmolessoule@gmail.com
WhatsApp Instagram Facebook Twitter

FORJA ZAPATA
Industrias ANCAR s.l.
ONGI PASA BESTAK!
BURDINA FORJATUAN
MOTA GUZTIETAKO LANAK.
Arizkun-Baztan · 948 45 30 55
industriasancar@yahoo.es



«Su, antzerki eta ezki- bueltan sortzen den momentua berezia da»

UXUE MUGIRO LARREGI ARIZKUNGO GAZTEA

Herriko bestak «aunitz» maite dituen arizkunder gaztea da Uxue Mugiro, «nahiz eta aukeran, inauteak nahia-
go». Bere erranetan, «Baztango gai-
nerako herrietako besten antzekoak
dira Arizkungoak, baina bakoitzak
bere herriko beste xarma berezia
harrapatzen die. Gurean, San Juan
bezperan su, antzerki eta ezki-
bueltan sortzen den momentu hori
azpimarratuko nuke. Kanpotik etor-
tzen den jendea aunitz gustatzen
zaio baina herritarrek desberdin bi-
zitzen dugu. Zaila da azaltzen».

Horrez gain, «zopen eguna aunitz
gustatzen zait. Indar handiz hartzen
dugu eta herrian giro ona egoten da;
adin guzietako jendea biltzen gara.
Gazte bazkaria ere maite dut, bes-
tondoak disfrutatzen uzten badizu
egun xarmanta izaten da! Aurten,
gainera, larunbatarekin suertatu da,
beraz, ondotik arratsaldeko kontzer-
tuaz gozatzeko aukera izanen dugu».

Bestaz disfrutatzeke, ordea, lehen-
bizi dena antolatatu behar. Aurten *da-
munausi* (danbolin nagusi) da Mu-
giro, eta azaldu duenez, «urtero lau
izaten gara. Orain arte gazte bakoitzak
bi urtez egiten zuen, baina azken
urteetan gazte gehiago garenez,
gehiengoak urte bakarrean egiten du.
Normalean boluntario izaten gara,
eta inor aurkeztuko ez balitz, zozke-
ta eginen litzateke, baina ez dakit
noizbait hala tokatu den».

Aitortu duenez, «gauza aunitz iza-
ten dira lotzeko, baina lan karga arin-
tzeko, herriko gazte bakoitzari kargu
bat esleitzen zaio. Horretarako bilera
bat egiten dugu eta norberak kargu
bat hautatzen du». Gainera, «gazteen
ostatuan edo txosnan txanda bat
egiten du gazte bakoitzak eta horrek
aunitz errazten du *damunausien*
lana».

San Juan bezpera

Ekainaren 23ko ilunabarrean suak
piztu eta ezkiaren soinuak da nagusi
herrian. «Normalean jende aunitz



biltzen da herrian egun horretan,
baina momentuz ez da neurrik har-
tu behar izan jendetza kontrolatzeko.
Akaso aitzinerago tokatuko da!».

Suak saltatu ondotik, berriz, su in-
guruko antzerkiaren txanda da. «Ai-
tzineko belaunaldiak egiteari utzi
zion, baina badira pare bat urte gaz-
te batzuk lekukoa hartu zutela eta
berriz ere antzerkia egiten hasi gine-
la».

Antzerkiak «lan handia izaten du,
nahiz eta motza eta sinplea egin.
Lehenbizi antzerkia eta dantzak sor-
tu behar dira eta ondotik entseguak,
arropa lortu, musika hautatu... eta
sortzen diren bertze mila lan ttiki.
Hala ere, emaitza beti aski polita iza-
ten da eta jendeak aunitz disfrutatzen
du, bai ikusten eta baita parte hartzen
ere». Aurten, erraterako, «gazte batek
ekarri zuen gaiaren proposamena eta
hortik, gainerakoen laguntzaz, osatu
dugu».

Duela urte batzuk egiten zituzten
antzerkietan «herritar aunitzek par-
te hartzen zuten, baina lan handia
eta konpromisoa eskatzen du horrek,
eta denek ez dute entseatzera etor-
tzeko astirik. Hortaz, azken urteetan
jende guttiagok parte hartzen du. Bi
hilabete fietago hasten gara dena
prestatzen baina azken asteetan mai-
zago biltzen gara, dena behar bezala
lotzeko». Hortaz, «dena ongi ateratzea
eta jendeak gozatzea espero dugu.
Ongi pasatu baina pasatu gabe!».

ERRATZUKO BESTAK 2025



658 81 73 14 | 948 45 34 71 ERRATZU

SERRERIA ALEMAN S.L



Teilaturako estrukturalak
Tarimak · KVH
Laminatuak · Egur trinkoa
Tratamenduak

Frantziako errep. 2-A ERRATZU
T. 948 453 173 | serreriaaleman@gmail.com

SANTXOTENA Eraikuntzak

Ongi pasa bestak!

Erratzu | 608 979 809 | santxotenasl@gmail.com



KASTONEA

LANDETXE
OSTATU-JATETXE
Ongi pasa bestak!

31714 ERRATZU
948.453.065 - 656.933.760
www.kastonea.com - info@kastonea.com

ALBANTZENA OSTATUA-DENDA

Ongi pasa herriko bestak!

Albantzena etxea, ERRATZU - Tel: 948 453 112



ongi pasa
bestak!!

Auto, furgoneta, 4x4 eta kamioien konponketa,
mantentze-lanak, mekanika, elektrizitate
eta pneumatikoen salmenta.
2. eskuko kotxeen salmenta.

Ordoki ind. - Arizkun - BAZTAN
T.Fax 948 453 493 - 617 969 847
bztangoiza@yahoo.es
www.bztangoizataillerrak.com



Ekainak 27, ortziralea

10:30etik 13:30era puzgarriak izanen dira, eta **12:00etan** tupinazoa. **14:00etan** haurren bazkaria karpan eta **15:30etik 16:30era** moto ttikien froga haurrendako. **16:00etan** ezquila jotzea. **17:00etan** Izpegiko XVI. Igoe-
ra, **ondotik** txokolate hartzea Bereko bentan. **21:30ean** zopa herrikoia plazan, **ondotik** dantzaldia Bizphiru Pelau taldearekin.

Ekainak 28, larunbata

10:00etan diana herriko pandero jotzaile eta trikitilarekin. **11:00etatik 13:30era** jolastoki ibiltaria izanen da frontoian. **12:30ean** bertso poteoa tabernaz taberna Maddi Ane Txopere-
na eta Ekhiñe Zapiainekin. **14:30ean** bazkari herrikoia Kanpinean. **17:00etan** herriari itzulua Elektrotxo-
rongorekin. **20:30ean** LGTBIQ+ Harrotasunaren aldeko kontzentrazioa. **21:00etan** mutil dantzak, gaita eta larrain dantza. **23:00etan** dantzaldia Iparlan Frantxikkorekin eta aldi berean kontzertuak: Chuleria Joder eta Lukiek, **ondotik** Fresa Morango DJak.

Ekainak 29, igandea

10:00etan diana herriko gaiteroekin. **11:00etan** herriko trikitilari eta pandero jotzaileak. **11:00etan** herriko dantzari ttipiak plazan, **ondotik** mutil dantzak eta luntxa. **17:30ean** pilota partidak: emakumezkoetan San Fermin txapelketako partida eta gizon-
ezkoetan Salaberria eta Aldabe De la Fuente eta Gaskueren kontra. **20:00etan** Destino Sonoro mariatxien emanaldia eta mojitoak. **21:30ean** mutil dantzak, gaita eta larrain dantza. **23:30ean** Besarka taldearen kontzertua.

Ekainak 30, astelehena

10:00etan diana txistulariekin eta aldi berean Erratzuko pilotari gazte-
txoen arteko partidak Gorostapalon. **11:30ean** pilota partidak Gorostapalon. **14:30ean** zikiro jatea Hauspolari-
ek alaiturik. **21:00etan** mutil dantzak, gaita eta larrain dantza. **22:30ean** pintxaldi irekia.

DONEZTEBEKO BESTAK 2025

CS SALDIAS
HARATEGIA
Deitu edo bidali
whatsapp eskaerak
egiteko eta bildu
erosketak atean bertan,
aparkatu beharrik gabe.

948 450 191

Karrika Nagusia, 19 • DONEZTEBE

TALLERES ELIZGOYEN
Autoen eta lur orotako ibilgailuen konponketak

Mekanika azkarra
Multimarka diagnosia
Injekzioa
Gasolioa
Direkzioa
Balaztak eta ABS
Elektronika
Aire girotua
IAT aurreko azterketa
Esekidura
Txapa eta pintura
MULTIMARKA TAILERRA

**ONGI PASA
BESTAK!**

Leitzako bidea, 78 – Doneztebe | 948450158
elizgoyen@telefonica.net

KIMETZ
Belardenda

Gaur egungo kontsumora egokituz,
bertan erosteko aukera,
baita online ere:

www.kimetzbelardenda.com
@kimetzbelardenda

Zure konfiantzazko belar denda,
inoiz baino hurbilago

**Ongi pasa
bestak!**

Leitzako errepidea, 7
31740 Doneztebe

948 451 473
650 779 128

Ekainak 26, ortzeguna

20:00etan txupinazoa. **Ondotik**,
kalejira Doneztebeko txistulariekin
eta Elutxa txarangarekin. **Ondotik**,
zopak herriko elkarteetan eta osta-
tuetan. **22:15ean** suzko zezena Bear
Zanan. **00:00etan** Eztitan, Santa Lu-
zia plazan.

Ekainak 27, ortziralea

09:30ean diana gaitariekin. **10:00etan**
Aurorak herrian barna. **11:00etan**
udal tikiari ongi etorria eta txupina-
zoo. **11:30ean** kalejira erraldoiekin
eta buruhandiekin eta dantzari ttikien
ikuskizuna Bear Zanan. **Ondotik**,

dantzariantzako luntxa. **14:00etan**
udal ttikian parte hartu duten haurren
bazkaria. **16:00etatik 19:30era** hau-
rrentzako puzgarriak Bear Zanan.
17:30ean Aurorak kalejiran Gazte
Txarangarekin herrian barna. **18:00etan**
bertso saioa Santa Luzia
plazan Maialen Lujanbio, Julio Soto
eta Joanes Illarregi bertsulariekin.
19:00etan erremonte partida, Nafa-
rroako txapelketako finala Ezkurra
pilotalekuan. **20:30ean** Chuchin
Ibañez mariatxiak Santa Luzia plazan.
22:00etan Bisairen kontzertua esko-
lako patioan. **23:00etan** Gatiburen
kontzertua eskolako patioan.
01:00etan Alaikiren emanaldia San-
ta Luzia plazan.



ALICIA DEL CASTILLO



ALICIA DEL CASTILLO

sare
akademia

DBH ETA BATXILERGOA
- MATEMATIKA
(DBH-n fisika eta kimika aukerarekin)
LEHEN HEZKUNTZA
- ERREFORTZU KLASEAK MATEMATIKETAN

Talde txikitan eta jarraipen pertsonalizatuarekin.
2025-2026ko ikasturterako apuntatzeko epea zabalik.

INFORMAZIO GEHIAGO:
T. 615561458 (Nerea)
Emaila: akademiasare@gmail.com
Web orria: sites.google.com/view/sareakademia
Doneztebe





Ekainak 28, larunbata

09:00etan diana gaitariekin. 10:00etan plater tiroketa. 11:00etan erraldoiak eta buruhandiak. 12:00etatik 14:00etara, eta 16:00etatik 18:00etara Txu-txu trenaren herria. 13:00etan mutxikoak. 14:00etan Burrunbak antolatutako gazte bazkaria Santa Luzia plazan. 17:00etan apar besta Intzakardin. 18:00etan Sakatu elektrotzaranga. 19:00etan Batukada. 20:30ean Iratzar, Santa Luzia plazan. 22:15ean suzko zezena Bear Zanan. 00:00etan Iratzar, Santa Luzia plazan. 02:30ean DJ J&J

Ekainak 29, igandea

09:30ean diana gaitariekin. Goizez eta arratsaldean Incansables txaranga. 11:00etan meza nagusia. Agur Doneztebe, Trapatan eta Bandera dantza eta erraldoiak eta buruhandiak. Ondotik, luntxa herriko etxeko atarian. 17:00etan haurrentzako jokoak Intzakardin. 18:30ean aizkora apustua: Vicente eta Mugerza, Larrañaga eta Txikiaren kontra, eta Estefi Etxebeste harri altxatzailea Bear Zanan. 20:30ean Trikitiens erromeria Santa Luzia plazan. 22:00etan Erreka Dantza Taldaren emanaldia Bear Zanan.

00:30ean Trikitiens erromeria Santa Luzia Plazan. 03:00etan DJ J&J.

Ekainak 30, astelehena

09:30ean diana gaitariekin. 10:30ean mus txapelketa elizako atarian. 11:00etan erraldioen eta buruhandien irteera. Eguerditik aitzinera Elutxa txaranga. 14:00etan herri bazkaria Intzakardin. Ondotik, Xaibor. Gero, erreka igoera. 20:00etan bestetako zozketa berezia Santa Luzia plazan. 20:30ean A Toda Madre taldea Santa Luzia plazan. 22:15ean suzko zezena Bear Zanan. Ondotik, Gaixoa ni herriko etxeko atarian.



ordua eskatu

MAITE
ileapaindegia

GIZON ETA EMAKUMEENDAKO

Mourges Etorbidea, 4
948 451 780 - DONEZTEBE

SUPERMERCADOS

LINK

sumi

ONGI PASA DONEZTEBEKO BESTETAN!!

cafetería

Sorgiña
kafetegia

PINTXOAK ETA ETXEKO GOZOAK

Leitzako bidea, 6 | DONEZTEBE ONGI PASA BESTAK! 948 061 191

Doneztebe autoeskola

ONGI PASA BESTAK!

Leitzako errepidea, 2 | DONEZTEBE
doneztebeautoeskola@gmail.com

Inzakardi

Pinturak

- PINTURA LANAK OROKORREAN -

Eduardo Oyarzabal
m. 630 511 488

Inzakardi, 10
DONEZTEBE/SANTESTEBAN

MIKEL MUTUBERRIA
zurgindegia

Zurgin lanak orokorrean

Aparan Industrialdea - 31740 DONEZTEBE
Tel. 669 939 057
mutuberriazurgindegia@hotmail.es

ongi pasa bestak!

Sampi Aragón

ONGI PASA BESTAK

Sampi Aragón S.L.

Mekanika • Elektrizitatea • Txapa • Pintura

T. 948 450 354 | DONEZTEBE | sampiaragon@sampiaragon.com



Arozena
ostatu · jatetxea

Gosariak
bazkariak
eta afariak

ongi pasa bestak!

T. 948 450 443 - Leitzako errep., 84 - DONEZTEBE



LARUNBAT GAUETAN
SEKULAKO GIROA!!!

ONGI PASA BESTAK!

Merkatarien karrika, 28
31740 DONEZTEBE

erran.
eus

Mendialdeko Albistekak



ELIZAGA MUGIKA SL

conselmu
CONSTRUCCIONES

ongi pasa bestak!

Etxebizitzaren eraikuntzak
Teilatu berriztatzeak
Mota guztietako erreformak

T. 636 815 926 | conselmu@hotmail.com
www.construccioneselizagamugika.es



Bixen
Bixen ostatu

ONGI PASA BESTAK!

PINTXOAK | PLATER KONBINATUAK | PLATER TIPIKOAK
ETXEKO POSTREAK | ZIZKA-MIZKAK | HANBURGESAK
ENTSALADAK | BOKATAK

Amezti karrika | DONEZTEBE T. 848 680 806

«Doneztebeko bestetan ez nau etxeak azpian harrapatuko»

TXARO EZKURRA ZUNZARREN DONEZTEBEKO BESTAZALEA



Bestazalea denari zerbait berezia mugitzen zaio barrenean uda sasoi ailegatzaren denean. Blusa, jantzi zuriak eta zapia prest, atzerako kontaketa hasten dute. Txaro Ezkurra Zunzarren da horietako bat eta ongi zenbatuak ditu ekainaren 26ra arteko egunak, «txupinazoarekin besta lehertu eta bortz egunez gozatzeko». Hala aitortu du: «Doneztebeko bestetan etxeak ez nau azpian harrapatuko».

Umetatik ditu herriko bestak gus-tuko eta hainbat oroitza pen iltzatuak ditu: «Merkatari karrikan bizi ginen gu eta gogoan dut herriko gazteak nola ateratzen ziren Aurorak abestera San Pedro Egunean. Goizeko zazpietan hasten ziren eta ernatu eta karrikara pijaman jaisten nintzen beraiek ikustera. Txundituta egoten nintzen beraiei begira».

Ez da hori ume garaitik gordea duen oroitza pen bakarra. Kapritxo txikiak lortzeko aukera ere izaten omen zuen bestetan: «Tio Lucasen tiro pitxona etortzen zen, baita Juanita la txotxera ere. Eratzunak, pultserak... ekartzen zituen eta genituen diru pixarrak hor gastatzen genituen». Erromeriak ere

garrantzia handia izaten zuen: «muskia Behar Zana frontoian izaten zen eta oroitzen naiz jende z lepo egoten zela. Dantza saio ederrak egiten genituen». Kukaña ere jartzen zuten, «Bordatxo ondoan dagoen zubian eta hantxe ibiltzen ginen erre kara salto eginez».

Bestan gozatuz

Gazte garaian, gautxoria izan zela ere aipatu du: «lehen batez ere gauez ateratzen ginen». Aitortu du «gaupasa bat edo bertze» eginak direla «eta arratsaldeko lau etan nola edo hala ernatu eta gero, berriz ere, parrandara joaten ginen».

Garai bateko oroitza pen izugarri politak ditu eta nabari zaio ederki gozatu zuela: «batzuk diote garai bateko bestak zirela hoberenak. Hoberenak ziren bai, baina guretzat». Garaiak aldatuz doaz eta «garaian garaikoa» bizi behar dela uste du, «horrek ez du erran nahi bestarako aukerarik ez dugunik». Orain gaueko ordu txikiak baino nahiago du eguzki argitan ibili: «batez ere egunez ibiltzen gara bestan».

Doneztebeko bestetako egitaraua ongi ikasia du eta egunero topatzen du zer egina: «bezperan zopak jatera joaten naiz eta bertze egunetan Aurorak, Mendi abesbatzak, batukadak... bestaren erdigunean, saltsa betean, egoteko aukera» ematen diote.

Bada bestetan beti betetzen duen urrezko arau bat «otordurik prestatzeko lanik ez hartzea. Ez dut bestetako egun bakar batean ere bazkaltzen etxean». Egunero izaten omen da karrikara atera eta «otordua kanpoan egiteko aukeraren bat». Umetatik hartutako ohitura izanen da, akaso: «guk estatua genuen lehen Donezteben, Ezkurra jatetxea, eta bertan lana egitea tokatzen zitzaigun. Guk ez dugu senideak bazkaltzera etxera etortzeko ohitura hori inoiz izan. Zerbait ospatzen bagenuen beti izaten zen etxetik kanpo; etxean bagenuen nahikoa lan». Ostalariek ere noizbait behar baitute atsedena.

Abesbatzako kidea

Mendi abesbatzako kidea da eta San Pedro Eguneke mezan abesten du: «momentu berezia izaten da niretzat. *Agur Doneztebe* kantua abesten dugun momentuan oilo ipurdia jartzen zait, obra ederra da benetan». Eguna borobiltzeko, «amarekin, ahizparekin eta lagun batekin bazkaldu eta buelta bat ematera joaten gara eta arratsean Erreka dantza taldearen emanaldia ikustera». Bestetako ekitaldi bat nabarmentzeko eskatuta, Erreka dantza taldearen emanaldia eta Gazteen Eguneke herri kirol saioa nabarmendu ditu: «Errekako dantzarien ema-

naldia hagitx ikusgarria izaten da eta Gazte Eguneke herri kirolean saltsa polita sortzen da».

Aurorak

Aurora abestera ere joaten da. Izkina batetik begira egoten zen haur hura, bestaren parte bihurtu eta karrikaz karrika abesten ibiltzen da orain. Jose Maria Zelaiek bultzatu zuen Auroren ohitura eta urte batzuetan galdu bazen ere, duela hamar bat urte berreskuratu zuten. Geroztik, urtero atera da Txaro Ezkurra Auroren taldea. Goizeko bederatziak aldera elkartu eta herriko karrikak alaitzen ibiltzen dira, «gero hamaiketako egin, bazkaldu eta arratsaldean txarangarekin herrian barna ibiltzen gara».

Batukada taldea

Batukada taldeko kidea ere bada eta larunbatean izanen dute egun handia: «45 urtetik gorako emakume kuadrilla ederra aterako gara batukadan». 2023ko bestetan jo zuten lehenbizikoz jendaurrean eta dagoeneko bestetako ezinbertzeko ekitaldia da: «ederra da emakume talde bat horrelako indarrarekin karrikan jotzen ikustea. Giro bikaina izaten dugu gure artean eta gure inguruan bestan da biltzanek ere uste dut ederki pasatzen dutela».

Herri bazkaria

Bestak borobiltzeko, ekainaren 30ean antolatu duten herri bazkarirako txartela ere eresia du Txarok: «otordu horren bueltan adin desberdinetako jende ugari biltzen gara eta aitzakia



ALICIA DEL CASTILLO

Ongi pasa bestak!

Leitzako bidea, 90 Eguzki Eder · T. 615 70 68 02
eliarrietaeskola@gmail.com

Ongi pasa bestak!

Marta eta Maria

Merkatarien karrika N°24
Doneztebe
T: 948450751
620300141

Doneztebeko Bestak 2025

HERRITAR ETA BISITARI GUZTIOI. ERRESPEZUZ BESTA EGIN!

Doneztebe/Santesteban

Udala

Zuretzat lanean

ERASO SEXISTARIK EZ!

asegi asesorías

Zergalan

- Kontabilitate zerbitzuak
- Zerbitzu fiskalak
- Lan-aholkularitza
- Aholkularitza juridikoa
- Herentzia eta Testamentuak
- Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzua
- Datuen babesa
- Mugaz bertze aldeko aitortpenen kudeaketa (langileak eta enpresak)

www.zergalan.es | zergalan@asegi.es
www.asegi.com

Baztanberri plaza, 6 31700 ELIZONDO 948 581 300 · F. 948 580 648	Eztegara pasealekua, 22 31780 BERA T. 948 631 108	Eliza Kalea, 22 31740 DONEZTEBE T. 948 450 395 · F. 948 451 304	Eltzeta, 20 31770 LESAKA T. 948 638 07
--	---	---	--

ONGI PASA
BESTAK



talleres **EDERKI** tailerra



CITROËN

Leitza errepidea 57
31740 DONEZTEBE
T. 948 451 798 Fax 948 451 623
talleresederki@soc.redcitroen.com

Latigillo hidraulikoen moldaketa
PEUGEOT MARKAN ESPEZIALISTAK



ONGI PASA BESTAK!



TELLETXEA

MUEBLES | ALTZARIAK

Altzari rustikoak

Altzari modernoak

Gazteentzako altzariak

Koltxoia Sukaldeak

Rosa Seminario, 12 | T. 948 450 258



GURPILAK - GASOLINDEGIAK

1999. URTETIK

**PARTIKULAR ETA GARRAIOLARIENTZAT
ZERBITZU ANITZAK**

Ibilgailu guztietarako gurpil eskaintza bereziak

24h-ko asistentziak errepideetan



IAT aurreko zerbitzua dohainik

Gasolindegia 24h irekita

**GASOLIOA
ETXERA**
eramaten dugu



609 446 693 - 679 204 872

bidaso@neumaticosbidaso.es

www.neumaticosbidaso.es

Eska ezazu BIDASOA txartela erregaian deskontuak izateko



Alkaiaga Industrialdea
Ziobi Kalea 6
31770 Lesaka (Nafarroa)
948 625 663 - 636 293 125

**Ongi pasa
bestak!**



Noain-Eskiroz Industrialdea
Y Kalea 10
31110 Noain (Nafarroa)
948 312 239 - 679 204 872

polita da aspaldian egon gabeko herri-ideekin elkartu eta tarte eder bat pasatzeko».

Herriarren parte hartzea

Txarok argi du herriarrak inplikatzeko ezinbertzekoa dela eta bera da horren adibide argia: «herrian bertan sortutako ekitaldiek lehentasuna izan behar dutela uste dut. Herrian bada mugimendua eta antolatzen diren ekitaldietan parte hartzea ezinbertzekoa da». Argi dio: «herriarrek egiten dituzte herriko bestak berezi eta antolaketan eta egunean bertan, ekitaldietan parte hartzea ezinbertzekoa da». Kanpotik ekarritako ekitaldi handien ordez, «nahiago ditut herrian, herri- eta herriarentzat sortutako ekitaldiak».

Emakumeen presentzia

Besta giroan emakumeen presentzia handia dela nabarmendu nahi izan du: «badago zer hobetua, baina argi dago emakumeek badugula gure tokia bestan. Batukada taldean, adibidez, emakumeak gara denak, baita Auroretan ere». Adina ere ez da muga: «45 urtetik gorakoak gara batukada taldekoak. Baditugu 70 urtetik gorakoak ere. Auroretan ere 50 urtetik gorakoak gara denak». Garrantzitsua da herriar guztiei bestarako aukera ematea: «adina ez dadila muga izan».

Azken urteetan egitarauan egin diren aldaketak «positiboak» izan direla dio, gauza bakarra aldatuko luke: «aurten bestak ortzegunean hasiko dira eta San Pedro Eguna igandean da. Asteburua probesteko egiten dute eta ahalik eta jende gehien erakartzeko, baina nik nahiago nuen, garai batean bezala, bestak bezperan hasita. Egun handira frexkoago ailegatzeko ginen».

Pilotarien familiakoa izanik, pilota jaialdiren bat ere gustura hartuko luke: «kristoren afizioa dugu». Zer ikusi, hura ikasi erran ohi da eta titulatik ibili izan da pilotaleku inguruan: «aita eskuz aritzen zen eta nik ikusi nuen jokatzeko. Oroitzen naiz Labriten erretiroa hartu zuen egunaz, hamabost urte nituen». Koteto anaiari segika ere joan-etorri ugari eginga da: «Gallarreta nire bigarren etxea zen eta orain iloba ere, Ezkurra II.a erremon-tean aritzen da». Herrian pilota partiduak zuzenean ikusteko aukera



ALICIA DEL CASTILLO

Ainhua Altzuguren Mitxelena

ongi pasa bestak!

Abokatutza orokorrean · Herentziak
Alokairuak · Arazo administratiboak
Zerbitzua euskaraz ematen dut. Deitu hitzordua hartzeko

Legia 42, BERA - M. 630 97 21 89
ainhoaaltzuguren@gmail.com

EROSKI city

ENKARGUAK HARTZEN DIRA

Ongi pasa bestak!!

T. 948 456 152
Zazpigerutze, 8 · DONEZTEBE

JANARI-DENDA · HARATEGIA · FRUTAK

GARRAIOAK, GARABIAK ETA ZERBITZUAK

J.V. Jubera, S.L. eraikuntzak

ongi pasa bestak
DONEZTEBE

Leitza bidea, 72 · DONEZTEBE · T. 948 451 793
T. 659 702 694 · jvjubera@gmail.com

zrb.net
informatika

ongi pasa bestak!

Merkatarien kalea, 29
31740 DONEZTEBE
T. 948 451 752
M. 609 418 097
info@zarbo.net
www.zarbo.net

GARBI

ORDUBETE BAINO GUTXIAGOAN EDOZEIN ARROPA
MODU ERRAZEAN GARBITU ETA IDORTU!

AUTOZERBITZU GARBITEGIA

BESTA ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUEGU!

MANTAK,
EDREDOIAK,
NORDIKOAK,
EGUNEROKO ARROPA...

ARROPA
GARBITU eta
DESINFECTATU
ERAGINKORTASUN
eta KALITATE
HANDIENAREKIN

XABOIA
OXIGENO AKTIBOA
LEUNGARRIA
BARNE

633 424 263 Urteko 365 egunak 08:00-22:00 LEITZAKO BIDEA, 29 DONEZTEBE


DONEZTEBEko AVIA GASOLINDEGIA



CLUB AVIA txartelarekin
%2ko deskontua erregaian
eta %5eko deskontua
dendako produktuetan



Leitza bidea, 49 · T. 948 451 679 · www.doneztebe.net



Mendiburu
aziendak · tratantea

*Angi pasa
herriko bestak!*



608 676 221
948 450 084
DONEZTEBE

ONGI PASA BESTETANI!

Angie
ENGLISH ACADEMY

Cambridge English
Exam Preparation Centre

Cambridge English
Teacher
Member



Cambridge English
Exam Preparation Centre
This is a certified
Angie English Academy
preparing and offering candidates for Cambridge English exams,
the world's leading range of qualifications for learners of English.

8 urtetik aurrera. HAUR · GAZTE · HELDUAK
Hasiera mailatik: A1 · A2 · B1 · B2 · C1 · C2

1991z geroztik Cambridgerako azterketa ofizialak
prestatzen ditugu eta hagitz emaitza onekin.
Itzulpenak ere egiten ditugu.

T. 626 908 076 · angiacademy@gmail.com
Elizagibela, 7 behe · 31740 DONEZTEBE



ALICIA DEL CASTILLO

gutxi izaten denez, telebistan ikusita konformatu behar izaten du: «hemen herri kirolak dira nagusi, Doneztebe-koa aizkora plaza da».

Elkargunea

Herri kirol zale, musika zale zein dantzari, denentzat dago tokia Doneztebe-ko bestetan. Doneztebe betidanik izan da Malerreka-ko herrientzat elkargunea eta Doneztebe-ko bestek ere «funtzio hori betetzen» dutela uste du. Jendea gogoz etortzen da: «lehenbiziko bestak dira eta jendea-ri nabari zaio gogo eta ilusio berezi bat. Doneztebe bertze herriendako erreferentzia dela erranen nuke». Herri-ritar zein kanpotar, «bestarako gogoz etortzen diren guztiak ongietorriak izanen dira».

Uda Donezteben

Doneztebe-ko besten ondotik, Iruñe-ko sanferminetara joateko asmoa ere badu: «arras gustuko dut hango giroa eta pare bat egunetan joanen naiz egunpasa». Hurrengo asteetan, ordea, «lasai, Doneztebe inguruan» ibiliko da, «udan ez naiz inoiz oportetara kanpora joan». Urteko bertze sasoiak erabili izan ditu horretarako: «aste txuria edo aste santu inguruan egin izan ditut beti oporrak». Bidaiatzea baita, bere afizioetako bat: «Alsazian izan naiz berriki, Oihan Beltza eza- gutzen eta paraje zoragarriak dira».

Doneztebe-ko eskolan irakasle zenean opor garai horiek erabiltzen zituen atzerrira joateko. Orain erretiroa hartuta, nahi duenean du bidaiatzeko aukera: «hala ere irteera bat edo bertze egin eta herri inguruan bizitza lasaia daramat».

Irakasle ohia

Doneztebe-ko eskolan aritu zen lanean 28 urtez eta ez da seinala txarra izaten erretiroa hartuta ere titulua mantentzea: «nire ikasle izan zirenek aunitz maite naute eta plazer bat izan da nire herrian lan egiteko aukera izatea». Familiekin beti harreman bikaina izan duela dio: «jendeak errespetatu nau eta eroso sentitu naiz. Hurbila izan naiz, baina haiek bazekiten non zegoen muga».

Irakasle lanak utzita, afizioen bueltan lortu ditu titulu berriak. Zerrenda luzea da: abeslari, batukadako kide, ingeleseko eta pilateseko ikasle, etxeko-koen zaintzale, behar denean laguntzaile... «Bizitzaz gozatzea» da bere helburua: «fami- liarekin eta lagunekin ahalik eta gehien disfrutatzea». Datozen egunetan berarekin topo egin nahi duenak, ez du galbiderik. Doneztebe-ko karriketan topatuko du, bestaren erdigunean: emanez eta jasoz, besta giroa sortuz eta bestan gozatuz.



ALICIA DEL CASTILLO

Gure dendan aurkitu ditzakezu...

Burdindegia
Esku erreminta
Erreminta Elektrikoa
Lanerako jantziak
Margoak eta bernizak
Silikonak
Hidrogarbigailuak
Konpresoreak
Lorezaintza
Abeltzaintza
Baratzea

...eta askoz gehiago!

 **pezteguia Berria**
ferretería - burdindegia

Leitzako Errepidea - Doneztebe

www.apezteguiaberria.com

T: 948 450 994 - Fax: 948 450 882

BESTA ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUEGU!



ARKITEKTOAK

Bizitza berriak
Zaharberritzeak
Lokalen berrikuntzak
Ostalaritzarako proiektuak
Teilatu berritzeak

Efizientzia Energetikoa
Isolamendurako aholkularitza
Obra ttikien kudeaketa

T. 626 26 19 90
www.apezteguiaelizalde.com



AMA KONTXA
GASOLINDEGIA

ONGI PASA BESTAK!

24 ORDUKO ZERBITZUA

BEZEROARENTZAKO
ARRETA-ZERBITZUA ITXIA
DAGOENEAN

**BETE DEPOSITUA MAKINA
AUTOMATIKOAN**

TXARTELAREKIN EDO
ESKUDIRUTAN

**PRODUKTUEN DENDA
SUPERMERKATUKO PREZIOEKIN**



Ctra. N-121-A - Km 48,8 • DONEZTEBE
T. 948 450 272 · 948 450 787

«Peñen Egunaren falta nabaritzen dut Donezteben»

HAIZEA AROZENA FRESNEDA DONEZTEBEKO GAZTEA



naren kartela bigarrenez irabazle. «Herrian parte hartzeko modu polita delako» erabaki zuen Arozenak kartela aurkeztea, eta ilusioz hartu du berea aukeratu izana bestak iragartzeko: «Beti badago aukeratua izateko esperantza».

Trapatan dantza protagonista

Doneztebeko bestetan ezinbertzeko ekitaldi horietako bat izaten den Trapatan dantza oinarri hartuta sortu du aurtengoan lana. Lan «sinbolikoa» egiten saiatu da, «Trapatan herriko ohitura zaharra denez, hori plazatzea zen lanaren helburua».

Ez du kontatu zein izan den kartela osatzeko erabili duen teknika, «artista on batek ez baititu bere trukoak kontatzen», baina, prozesua zein izan den azaldu du: «Argazkiak iazko bestetan atera nituen eta lehiaketa baino hilabete lehenago hasi nintzen kartela prestatzen».

Doneztebeko azal lehiaketa bitan irabazi badu ere, ez du lehiaketaz

**«ESKERRAK EMAN
NAHI DIZKIET
BOTOA EMATERA
JOAN ZIRENEI»**

Uda hastearekin bat ospatzen dituzte Doneztebeko bestak, eta ospakizunetarako gogotsu daude herritarrek. Horietako bat da Haizea Arozena Fresneda: 15 urte ditu, eta, «Donezteben bizi den lesakar» gisa deskribatu du bere burua: «kirolzalea, alaia eta mugitua». Hain zuzen, horiekin lotutakoak ditu afizio nagusiak: «eskubaloian jokatzeko, euskal dantzak dantzatzeko eta herriz herriko bestetan ibiltzeko».

Doneztebeko bestetako protagonistetako bat izanen da Arozena, bigarren urtez berea baita herriko bestak iragarri dituen kartela. Aurten ere udalak azal lehiaketa antolatu du, eta herri bozketa bidez aukeratu dute Aroze-

**KONPONKETA INTEGRALA,
SALMENTA ETA ALOKAIKURUA**
www.garmenditx.com

ONGI PASA BESTAK!

Rosa Seminario, 13 | DONEZTEBE
660 05 54 94 - 747 40 29 58

SOROPIL ARTIFIZIALA

IGERILEKUAK

HARRIA

BIG MAT KLOROA
5 KG | 200 g-ko tabletak

24,95 € ↑



SUBSTRATU
UNIBERTSALA 50L

6,95 € ↓


ITXITURAK

PINTURA

**BIGMAT SESIMBRA
OBRAKO BARBAKOA**
Ikatzi eta egurrerako.
Hormigoi grisa,
adreilu horia eta
adreilu islatzailekoa.
Su-ontzia barne.

5394720

435,95 €



BARBAKOA



BARBAKOA BIG MAT
SINTRA PARRILAREKIN

169,95€

Ongi pasa bestak!

BigMat
Menditxuri
Zure denda!

MOSKITERAK

**ETA...
BURDINDEGIA
PLADURRA
ALOKAIRUAK
ITURGINTZA
ELEKTRIZITATEA
LOREZAINZA
MAKINAK
AZULEJOAK**





**Rebeca dantza eskolatik,
ongi pasa bestak!**

**Datorren urtean
gauza berriak etorriko dira,
ezin duzue huts egin!**

T. 722 606 785

lehiaketa ibiltzeko ohiturarik, ezta etxean horrelako lanak egitekorik ere. Hala ere, herrian bertan bertzeren bat antolatzen badute, «ez du baztertu» bertara lanen bat aurkeztea.

Bestak ailegatzeko gogoz

Herriko beste begira, «gogotsu» dago Arozena: «Ilusio aunitzekin bizitzen ditut, ahal den ekintza denetara agertuz eta horietan «disfrutatuz». Bestetako oroitzapen bat aukeratzeko eskatuta, ez du zalantzarik izan urtero-urtero errepikatzen den momentu bat aukeratzeko: «txupinazoa

baino lehen sortzen den urduritasun hori». Gainera, horixe du bestetako momenturik gustukoena ere, «bertan herri guztia elkartzen garelako». Bada, ordea, bestetan faltan botatzen duen ekitaldiren bat: «Erdi lesakarra naizenez, Peñen Eguna».

Arropa zuria, blusa eta painulua prest, bestetan murgilduko da heldu den astean Arozena. Horren aitzinetik, ordea, azken mezu bat zabaldu die herritarrei: «Eskerrak eman nahi dizkiet botoa ematera joan ziren denei. Euskaraz mingaina bustiz, gora sanpedro bestak eta besta onak pasa!».



ONGI PASA BESTAKI

Rosa Seminario, 15 • DONEZTEBE
T. 948 450 591 • M. 659 884 374
www.veterinariaostiz.com
ctveterinario@telefonica.net





Besta zoriontsuak opa dizkizuegu!

**IRURITA
RUBIO**
HORTZ KLINIKA

Odontopediatria | Irribarrearen diseinu digitala | Hortzetako estetika
Hortz-zuritze | Ortodontzia konbentzionala | Inplanteak
Endodontzia | Ortodontzia ikusezina | Periodontzia | Kirurgia
+34 948 450 267 | +34 618 480 553 | clinicadentaliruritarubio.es



Miguelena

SUKALDEAK
KOMUNAK

Etxetresnak | Pareta-armairuak
Sukalde eta bainugelako altzariak

ONGI PASA BESTAKI

T. 948 450 925 | M. 677 525 324
Amezitia zeharkarrika, 1 • DONEZTEBE

